


## AKARREGI AUZOA

### “Inoiz ez dakigu zer aldaketa egingo dizkiguten”

Akarregiko bizilagunak ez daude gustora auzoaren egoerarekin. Erribera arratoiz betea omen dago eta saihebidet berria zertan geratuko den ez dakite.



Akarregiko azken etxeak beldur dira kotxeren bat lehiotik sartuko ote zaien.

Akarregiko auzoa Karabelgo bidegurutzean hasi eta Martindegiko bidegurutzean bukatzen da. Berrehun bat lagun bizi dira (erdiak etxe haundian) bidearen alde bietara. Orain saihebidet arrapatzen ditu erdiz erdi eta eta auzotarrak ez daude guztiz gustora lanen martxarekin.

#### HASIERAN BEHETIK

Hasierako proiektuan erriberatik omen zijoan bidea. “Terreno hoiek, ordea, inbiliararenak dira eta gu baino indar gehiago dute norabidea aldatzeko” esan digu Pili

auzotarrak. “Guk bidea behetik egiteko planoak eraman genituen Diputaziora, baina, beren planetan ez zela sartzen erantzun ziguten”.

#### LANAK INPROBISATZEN

Hasierako planak guztiz aldatu omen dituzte. “Aldiro aldaketaren bat egiten dute, eta txarrena da guk ez dugula egin arte jakiten. Orain ere Martindegi alderako bidearekin ez dakigu zer pasako den”. Eskapadaren bat edo beste ere egin omen dute “hasieran harriak erortzen ziren; bi haundi askoak aparkalekuko

tejabana zulatu digute. Kejatu ginenean badaezpada etxera ez etortzeko esan ziguten, eta horrela ibili gara sare haundi hauek jarri dituzten arte”

#### ERRIBERAKO ZIKINA

Auzotarrak haserre dauzkan beste gai bat Erriberaren egoera da: “Arratoiz josia dago, lur beltza saldu eta txerrikeria besterik ez baitzuten sartu”. Baina ez da hori dena: “Lurra botatzera etortzen diren kamioiek bidea harriz eta lokatzez betea dute, eta inork ez ditu garbitzera behartzen. Kasik ez dago oinez ibili ere egiterik”. □

## OSIÑAGA AUZOA

### Harriatsuko eskolan ibilitakoen jaia Pilariketan

Aurtengoa, hamaikagarren urtea dute, hasi zirela.

URRIAREN 12a egun berezia da Harriatsuko eskolan ikasi zutenentzat. Behin, gela bateko lagunak festa egiten hasi ziren ikasle garaiak gogoratu eta ospatzeko. Gainontzekoei ere ideia gustatu, eta orain bertan ibilitako guztiek egun pasa egiten dute, Harriatsun.

Eguerdirako bildu (meza ere eman izandu da), bazkaldu, trikitixa dantzatu, bertsoak entzun... egun konpletua.

Bazkaritarako alde aurretik eman behar da izena. Hori bai, Harriatsun ibilitakoek bazkarrik omen dute bazkaritarako gonbidapena. 943-555830. □

## 3. MAILAKO FUTBOL LIGA

### Zamudiok 5-1 goleatu du Hernani

0-1 irabazten hasi eta Zamudiok 3 gol sartu zituzten bost minututan. Saikapenean behean jarri litezke.



Realaren kontra Zubipen. Datorren partidua ezin du galdu.

“EZ da gure eguna izan” esan du Eneko Goia Hernaniko jokalariek. Talde txuri berdea Zamudiora puntu premian joan zen, eta egurra jasota itzuli da.

Partidua ondo hasi omen zuten. Hamabigarren minutuan Luis Lasak gola sartu eta aurretik jarri zituen hernaniarrak. Zamudiokoak, ordea, kol-

pean esnatu eta 3 gol bost minututan sartu zituzten. Bigarren denboran, txuri-berdeak aurrera jo zuten eta kontraerasoan etorri zitzaizkien laugarren gola. Eta, errematatzeko, azken minututan, bostgarrena.

Hernanik ez du oraindik partidurik irabazi. Bostetik hiru berdindu eta bi galdu. Hiru punturekin dago. □

### ‘Berdintzen’ plataformak bilera egingo du bihar

Txalaparta Elkartean egingo du, arratsaldeko zortzietan. Bilera irekia da.

POBREZIA eta bazterketa sozialaren aurkako *Berdintzen* plataformak hasi ditu bere gizarte lana planteatu eta antolatzeko bilerak. Esku-artean ibili duten gai

nagusietako bat karta sozialarena izan da. Joan den ekainean kanpaina berezia ere egin zuten. Taldean sartu nahi duten guztiek atek irikita dituzte. □

MARI FER  
ARRANDEGIA

Nagusia 36      Orkolaga 17  
943 55 04 89      943 55 27 41

HERNANI

Laboreak  
Haizea

Eskulanak egiten irakasten dugu.

► Gurutze puntua      ► Bainika  
► Erdi puntua      ► Enkage-Zirizko lanak  
► Gakorraz lanak

HAIZEA  
Kortsetegia - Mihsidenda  
Telf.- 943 55 55 19  
Kardaberaz 2, HERNANI

Goizez eta arratsaldean haurrak eta helduak  
Ikastaroak

Roiznahi hasteko aukera.

AURKJ

Eskulanak/Arte Ederrak

Tlf.- 943 55 72 56  
Elkano, 6. HERNANI

## Oialumeko dantzalekuak gaur irekiko ditu ateak

Igandero dantzaldia izango da gaur hasi eta ekainera bitartean. 20:00etatik, gauerdirate izaten da.



Oialumeko dantzalekuak, aurtengoa noiz hasiko zain.

OIALUMeko dantzalekuak aurten du 58. urtea. Lehen edizioa apustu baten bueltan sortu zen. Felix Orkolaga eta Joxe Patasek (azken hau ote zen ez dago zeharo garbi) pultzu apustua baitzuten, zeinek pisu gehiago jaso. Festa nolabait borobiltzeko soinu-jole bat jarri zuten igande arratsalde hartan, eta sortutako giroa ikusita igandero etortzeko gonbitea egin zioten. Markox Zubeldia soinu-jolea zen orduko taldea, aldiko bost duro irabazten zituena.

**DANTZALEKU BERRIA**  
Hamaika urte dira dantzaleku berria egin zutela. "Eguraldi txarrarekin ez genuen karrerarik ateratzen" esan digu Korok, tabernako nagusiak. Urtero *Trakets, Izotz, Etsakit, Egan, Alaitz eta Maider...* talde mordoia pasatzen da bertatik; eta jendea! Azpeitia, Arantza, Hernani, Andoain eta inguruko herri gehientsuena etatik hurbiltzen da.

Festa zalea denak badaki, beraz, bere moduko jendea non izango duen. □

## BOLEIBOLA

### Gazteek 3-0 irabazi dute ligako lehen partidua

LIGA ondo hasi da Hernaniko boheilolarentzat. Gazteek 3-0 irabazi zuten Galdakaoren aurka, eta partzialek garbi erakusten dute hernaniarren nagusitasuna: 25-15/25-13/25-13. Nagusien emaitza bihar emango dugu. □



Nagusiak, berotzen.

## MUS AZKARRA

### Jabi-Antton eta Antonio-Joxean txapelak

UDAZKENAREKIN batera hasi dira Hernaniko tabernetan *mus azkarra* txapelketak. Ostiralean, Antziola tabernan, Jabi eta Anttonek eraman zituzten urdaiazpiko, langostino eta txanpainak. 14 bikote izan ziren. Atzo El-kanon, berriz, Antonio eta Joxean nagusi. Hemen liga egiten da. □



Laukotea Antziola tabernan musean, atzo arratsaldean.

## Osa Apaiza Congora doa



Manuel Osa apaiza.

HIRU hilabete etxean eginda bihar doa Congora otera ere Manuel Osa hernaniar apaiz gaztea. Lehenik Suajilia (hizkuntza,) bertako kultura eta bizimodua ikasiko ditu sei bat hilabetean. Ondoren Bunia (gerra pasa berria da) hiriko gazteekin egingo du lan, haien beharren arabera. Hiru urte barru etorriko da oportetan. □

## INTERNETA

### Timo berriak eta faktura latzak

INTERNETen debalde sartzeko konexio guztiak ez dira, itxuraz, oso merke ateratzen. Espainiako Erabiltzaile eta Kontsumitzaile Elkarteak salatu duenez, debaldeko zenbait web orri ikusteko, programaren bat instalatzea eskatzen du web orriak berak. Programa horrek, ordea, web orria ikusteko modua emateaz gain, modema deskonektatu eta ordaindu beharreko linea batera (906,...) konektatzen du, erabiltzailea ohartzeko. *Internauta* debalde dabilekakoan, orduko 9.000 ordaintzen ari liteke.

#### 'PLUG-IN'

Halakorik nahi ez duenak, kontu berezia izan dezala web orri bat ikusteko plug-in bat instalatzea eskatzen dioten debaldeko eskaitzekin. □

## HITZ BITAN

### UDAL ALDIZKARIA

Datorren urtean lehiaketa publikoa egingo da. Mertxe Etxeberria alkateak joan den osteguneko plenoan esan zuenez, udal aldizkaria egiteko lehiaketa publikoa egingo da datorren urtean; lehen, denbora arazoak medio, ez zen hala egiterik izan.

### KILOMETROAK

250-300 hernaniar joango dira gaur autobusez Azpeitiara. Dobera Euskara Elkarteak sei autobus bete ditu ikastolen aldeko festara joateko. Badira, inguruko herrietakoak ere, beren herrietan autobusik jarri ez delako. Goizeko bederatzia eta erdietan aterako dira, Atsegindegitik, eta arratsaldeko zazpiak aldera bueltatu.

### TXIRRINDULARITZA

Zikuñagako Amako zikloturistak Lizartzara doaz gaur. Bete bezala goizeko zortzietan Zinokoeneatik atera eta 72 kilometroko buelta egingo dute. Denboraldia martxoan hasi zuten eta hil honetan bukatu da. Urtean *etapa* gehien egin dituenak, edo hainbestetik gora egin dituenak, saria jasoko du.

### JUBILATUAK

Gaur dira Almeriatik etortzekoak. Joan den osteguneko zortzi, Jubilatuta Etxeak antolatuta 55 lagun Almeriara joan ziren hango bazterrak ikustera. Almeria eta inguruko herriak bisitatzeko zen plana. Hamar egun pasa han eta gaur bertan dira bueltan iristekoak.

### TUTEA ETXEBERRIN

14 bikote Etxeberriko soziedadek antolatutako tute txapelketan. Joan den osteguneko hasi zen lehen kanporaketa ia bukatu da. Gaur, 11:00etan, Markos eta Pepek Manolo eta Corderoren kontra jokatuko dute. □

## AGENDA

ERAKUSKETAK  
*Hernaniko Udalaletxea:*  
mende bat bizirik  
Udalaletxean bertan,  
12:00-14:00

Kuba orain hamar urte.  
Argazki erakusketa  
Zumardi jatetxean.

Juan Ramon Perez  
Oreretarraren Kuadroak  
Txema tabernan.

## ZERBITZUAK

### TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 557750

### FARMAZIAK

▶ Egunez: Correa  
Antziola, 44  
☎ 943 551933  
▶ Gauez: Correa  
Antziola, 44  
☎ 943 551933

## IRAGARKI MERKEAK

▶ Neska behar da arratsaldetan haurra zaintzeko. Gauez deitu  
☎ 943-551092



SANTA BARBARA

PEUGEOT



PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15  
Tel. 943 551 139 - Fax 943 551 152, 20120 HERNANI

### AUKERAKO AUTOAK

Peugeot 205 Diesela - 5 ate	SS-AW
Peugeot 405 Haize egokitua	SS-AP
Peugeot 405 SRI-Llantak-Haize egokitua	SS-AB
Peugeot 405 Turbo Diesela-Haize egokitua	SS-AG
Citroen AX Diesela - 5 ate	VI-L
Ford Escort Diesela	SS-AK
Opel Astra 'Caravan' Diesel	NA-AJ
Opel Astra Diesela 5 ate	SS-AT
Opel Corsa 'Don Algodon'	SS-AF
Opel Kadett 1.3 - 4 ate	SS-AH
Ford Courier Diesela - Lagundutako direkzioa	SS-AV
Citroen C:15 Diesel 'mixtoa'	SS-AH
Renault Expres Diesel	SS-AS
Suzuki 'Todo terreno'	NA-V

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...